



(+34) 636 134 265
San Martin, 36 - 3.B
20005 DONOSTIA

Farmaberti



FEUSE saria depresio nagusiaren inguruko lan batentzat



Igor Horrillo Furundarena

aurtengo FEUSE saria "Depresio nagusia" izenburua duen lanak irabazi du. Bere egilea gure elkarteko kide den Igor Horrillo Furundarena da eta lan honetan depresioaren inguruan garrantzizkoak diren gaiak jorratu ditu. Depresioaren oinarri neurobiologikoak aztertu ondoren, diagnostikoan erabiltzen diren adierazleak eta metodologia aipatzen ditu. Depresioaren tratamenduak lanaren zati handia hartzen du eta tratamendu ez farmakologikoak kontutan hartzen baditu ere, antidepresiboen azterketa sakona egiten du, bakoitzak dituen alde onak eta txarrak aipatuz. Amaitzeko, etorkizuneko ikerkuntza eta tratamenduei ere orrialde batzuk eskaintzen dizkio.

Saria 3.000 eurokoa da eta apirilaren 2an Donostian ospatuko den gure elkartearen batzar orokorrean emango zaio irabazleari. Egun horretan bertan Igorrek berak azalduko ditu bere lanaren nondik norakoak.

Joan den urtean FEUSE sariaren bigarren deialdia egin zuen gure elkarteak eta le-

henengo deialdiaren arrakastaren ondoren, bistan da etorkizuna baduela oraingoz. Aurtengo honetan bi lan aurkeztu ziren eta Igorrek egindakoa izan da epaimahaiak irabazle bezala hautatu duena. Epaimahaia honako kideek osatzen zuten; Gotzone Barandika (Gastelzko Farmazia Fakultateko irakaslea), Juanjo Aurrekoetxea (medikua, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko ordezkaria) eta Juan del Arco (Bizkaiko Farmazialarien Elkargoko zuzendari tekniko eta gure elkarteko kidea). Epaimahiaren koordinatzaile moduan Juan Carlos Aristorena zuzendaritza batzordekidea aritu zen.

Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie egin duten lanarengatik eta guztiak animatu nahi zaituztegu hemendik bi urtetara egingo den deialdirako lanak prestatzera.





Ehun haurretatik zazpik elikagaien bati alergía dio

Aurre hartzen oso zaila den eritasuna da, ez da bere aurkako txertorik, beraz, diagnostikoa oso garrantzitsua da. Guraso alergikoak dituzten haurrak joera gehiago dute, baina ez zein izan daiteke alergikoa. Gainera, normalki txikienetan agertzen den arren, edozein adinetan ager daiteke. Garrantzitsua da haurrak alergiarekin bizitzen ikastea, zenbait elikagai ez bait dira onartuko denbora pasatu arren (pertsona batzuek behintzat).

Alergia, gorputzaren defentsa erantzun neurrigabea da, gorputzak sustantzi kaltegarritzat jotzen du, jo behar ez lukeena, eta antigorputz bereziak sortzen ditu (E Inmunoglobulina). Erreakzioa denboran azkarra izaten da, eta batzutan ez dago jan beharrik ere, azalarekin kontaktua, edo elikagaia egosten ari deneko lurruna arnastea nahikoa izaten da.

Alergia susmoren bat izanez gero, medikuak probak egiten ditu, eta diagnostikoa egin ondoren, tratamendu bakarria elikagai hori inoiz ez jatea da, kasu larrietan sukaldeko ontzi pertsonalak erabili behar izaten dituzte. Susmarazi dezaketen sintoma batzuk hauek dira: Azkura (aurpegian, ahoan etab...), gorritasunak azalean, gonbitoak, malko-jarioa, asma etab... Alergia ematen duten elikagai orokorrenak:

1. Behi proteinak

a) Behi esnea: Behi esnea daraman elikagairik ezin da jan, hauek asko dira. Behi proteinak pentsa ez daitekeen elikagai batzuetan era badaude, beraz, etiketa ongi begiratu behar da (galletak, potitoak, gurina...). Haur hauek beste esne batzuk har ditzakete: Soia esnea (nutrizio aldetik oso ona da), almendra esnea (nutrizio aldetik eskasagoa). Adibidez txokolataa jan dezakete, baina hutsa, askotan esnea izaten bait dute.

b) Behi haragia: Kasu honetan ere ongi ziurtatu behar da elikagaiek behi haragirik ez dutela (txorizoa, saltxitxola, urdaiazpikoa, urdaiazpiko egosia...) batzuetan ezustean behi haragi pixka bat izaten bait dute.

2. Arrautza

Janari askok izaten dute arrautza: postre gehienek, maionesak, pateak, hestebeteak, zereal



batzuk... Etiketarekin kontu handia izan behar da eta ondorengo osagaiak debekaturik daude: lezitina (solarena izan ezlik), lisozima, albumina, koagulatzailea, emulsionatzailea, globulina, oboalbumina, obomukoidea, obolibetina, bitelina eta E-161b.

Txerto batzuk ere arrautz proteinak izaten dituzte. (gripeak, sukar horia etab...)

3. Melokotoia

Sarritan polenari alergía izaten diote haur hauek, beraz, kasu bakoitzean gomendioak ezberdinak izango dira.

4. Fruitu lehorrak

Hauek ere produktu askotan daude: labean egiten diren gozoetan, zerealeetan, galleta gazietan, izozkietan, barbakoarako saltsetan etab.... Kontuz begiratu behar da etiketa.

5. Arrainak

Gehienetan, arrain bati alergía dioten haurrek, besteak ere izaten die, beraz medikuak aurkakorik esan arte denak kentzea da egokiena, baita arrain irinez eginiko elikagaiak ere (Txaka...).

Haurrak asma edo urtikaria izanez gero, etxean arraina egiten den egunetan larriagotzen den edo ez behatu behar da, nahiz eta haurrak zuzenean ez arrainik jan, hau gertatuko balitz medikuarengana jo beharko litzaiteke.

Kide berriak egiteko kanpaina

FEUSEren 10. urtemuga dela bide, bazkideak gureganatzeko kanpaina berri bat egin dugu azken hilabete hauetan.

Oso pozik gaude jasotako erantzunarekin, 23 lankidek eman dute izena eta. Hauek dira:

- Lierni Aboitz Izurieta (Lekaitio)
- Olaia Acea Fernandez (Beasain)
- Jaione Alegre Navarro (Mañeru)
- Asun Arrastia Diaz (Iruña)
- Ana Berbel Ayestaran (Segura)
- Olatz Bibao Garcia (Bakio)
- Estibalitz Goienechea Soto (Donostia)
- Iban Gutierrez Artetxe (Amorebieta)
- Igor Horrillo Furundarena (Mendero)
- Aloña Iturzaeta Odriozola (Zestoa)
- Maite Lacube Arizabalaga (Zumaiak)
- Miren Oiarzabal Ibarra (Iruña)
- Olga Oliveira Ustariz (Bera)
- Irigo Puente Mendizabal (Gasteiz)
- Izaskun Ramos Cincunegi (Zumaiak)
- Estibalitz Saisamendi Rezola (Errenteria)
- Letizia Santamaria Ugalde (Gasteiz)
- Jokin Txakartegi Urizar (Gernika)
- Amaia Ubigain Etxeberria (Zumaiak)
- Goizeder Uria Silvana (Larrabetzu)
- Ivan Uriarte Lopez de Vicuña (Gasteiz)
- Ainara Urquiza Berges (Hondarribia)
- Teresa Villar Zabaleta (Tafalla)

Guztiok zarete ongi etorriak. Ea aldamenean duzun farmazialari euskaltzale hori gure elkarteko kide izateko builtzaten duzun.

“Benetako emalkuntzaren propagazioa, bi izaki ezberdinen arteko erabateko fusioa baino, hala-moduzko nahasketa bat izan daltekeen ideiarekin espekulatzeko joera izan dut azken boladan”. Hitz hauek Mendelek Huxleyri idatzi zizkion 1857an. Itxura denez, Mendelek bazekien, galtzen ez zen, belaunaldiz belaunaldi ugaltzeko ahalmena zuen ezaugarri finko bat bazela. Horrelaxe eman ziren genetikaren lehen urratsak. Mendelen lana eta honen ondorioek ez zuten ordea, berehalako lurrikararik sortu.

“Giza Genomaren Proiektua” 1998an hasi eta 7 urteren buruan giza genomaren % 10 irakurtzea ahalbideratuko zuen proiektua bazen ere, Venterren mehatxupean, 2000ko ekainaren 26rako bukaturik zegoen, eta genoma guztiaren mapa osatzea lortu zen. Honekin, gizakiak bere intimitatearen atea muntro txiki bati ireki zion, gizakiari, hain zuzen ere. Gure animaren ispilua aurrean biluzik jarri ginen. Pandoraren Kutxa zabalik zen.

Guzti hau irakurri ondoren, profesionalki zer eragin izan dezakeen galdetuko dio batek baino gehiagok bere buruari. Farmazialari bezala genetikaren munduak zuzenki ukitzen gaitu. Farmako berrien bilaketari genetika aplikatuz gero, farmakogenetika eta genomika funtzionalarekin egingo dugu topo aurrez aurre. Farmako berri hauek, gure artean iraunkortasun handia izanik, sendabide egokirik ez duten hainbat gaitzen irtenbide bilaka daitezke: Parkinsona, dementzia, asma, patologia kardiobaskularra, alterazio metabolikoak, diabetesa, minbizia...

Zeintzuk dira, ordea, genetikaren bi zutabe hauen ezaugarriak? Farmakogenetikak, farmakoen aurrean paziente-



Farmazialari bezala genetikaren munduak zuzenki ukitzen gaitu. Farmako berrien bilaketari genetika aplikatuz gero, farmakogenetika eta genomika funtzionalarekin egingo dugu topo aurrez aurre.

Genetika eta bioteknologia



ek dituzten erantzun ezberdinak aztertzeke balio du. Izaki bakoitzean existitzen den aldakortasun genetikoa eta administratzen diren farmakoen aurrean ematen diren erantzun ezberdinen arteko korrelazio bat ezartzea da bere helburua. Ezagutza hau diagnosi testak garatzeko erabiliz, farmakoaren eraginkortasuna edo pazienteak kontrako ondorio bat garatzeko duen probabilitatea jakiteko aukera izango genuke.


Genomika funtzionalak berriz, gaixotasunen oinarri genetikoa aurkitu nahi du, bakoitzaren patogeniaren puntu kritikoak identifikatu ondoren, irtenbide bat jarriko dion farmako bat garatzeko edo arazoa ekiditeko aukera izan dezagun. 2000an Glaxo laborategiak argitaraturiko artikulu batean, perfil farmakogenetikoa zuten farmakoak 3-5 urtetan merkatuan eta handik 15-20 urtetara komertzializaturik egotea espero zuen.

Gaur egun, inor gutxik jartzen du zailtzean genetika eta bioteknologia au-

rrera pauso handiak ematen ari direna. Eta ez hori bakarrik, berrikuntza guzti hauen beste ezaugarri bat azkartasuna baita.

Ia-ia zientzia fikzioko gauza izatetik, egunero ikusten dugun bizilaguna izatera pasada. Urrutira joan gabe, Donostian ditugu zebra arrainak laborategian. Beraien genomaren gaitzesker, farmakoak askoz modu eroso eta azkarrean azter daitezke,

farmako batek merkatutzeko bete behar dituen frogak denbora laburragoan pasatzeko aukera emanaz. Genetika ate joka izan dugu eta jada sukalderraino sartu da. Honen harira etorritz, aipagarria da Munduko Osasunerako Erakundeak berriki esan duena, genetikoki eraldatutako elikagaiek onura handiak ekar ditzaketela gizakien osasunerako, alegia. Benetan zirrargarria etorkizunak ekar dezakeena!





Aurtengo Batzar Orokorra eta jai eguna Donostian

Ategin handiz jakinarazten dizugu datorren apirilaren 2an, igandean, FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEAREN XI. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna, Donostian ospatuko dugula, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialean, hain zuzen ere. Egun berean, Igor Horrillo Furundarena-ri II FEUSE SARIA emango diogu. Igor farmazialari gaztea Mendarokoa da eta saritutako lanari buruz hitz egingo digu.



Egitaria eta gainerako zehaztasunak hurrengo egunetan jasoko dituzu; beraz, adi egon: datorren apirilaren 2an, igandean, Donostian duzu hitzordua. Oso ongi pasatuko duzu.

FEUSEren Batzar Orokorren eta jai egunen kronologia

Elkartearen Batzar Orokor eta jai egun guztiak igandean ospatu ditugu; 20 lagunetik 40ra bitartean bildu gara ospakizun bakoitzean. Hauxek dira, hurrenez hurren, egindako hamar batzar orokorrak eta jai egunak:

1996 DONOSTIA 1996ko azaroaren 30ean, Donostiako Gastronomiazko Euskal Anaiartea / Cofradía Vasca de Gastronomía elkartearen, 35-40 lagun bildurik, FEUSEren aurkezpen ofiziala egin genuen. Pabli Arrasate, Eli Genua, Nerea Karral eta Pello Iturria lankideek elkarte sortu zenetik egindako laburpena, hurrengo urteko aurrekontua eta elkartearen jardueraren plan orokorra eta proiektuak azaldu zizkieten bildutakoak. Lankide horiek esandako guztiari baletza eman ondoren, prentsaurreko bat egin zen. Jarraian, Gotzon Garate Gohartzun Deustuko katedradun ezaguna eta Jose Antonio Loidren lana sakonki aztertu duen jesuitak "Jose Antonio Loidi, euskal polizi eleberraren sortzailea" hitzaldia eman zigan.

Ekitaldi berean, Jose Antonio Loidi Bizkarrondo Irungo farmazialari eta idazlea FEUSEko ohorezko lehendakari izendatu genuen. Makilaren eskaintza eta bere ohorez dantzatutako aurrekua ospatu genuen. Jose Antonick, berak idatzitako "Amabost egun Urgain-en" eleberraren ale berezi bat eta egindako Ikerlan batzuk oparitu zizkion Elkarteari. Bertan egindako bazkariak amaiera eman zion jai egunari.

1997 PLENTZIA 1997ko azaroaren 30ean, Plentziako Ingunugiro Aretoan, 20 bat lagun bildurik, II Batzar Orokorra egin genuen. Jarraian, Roberto Lotina Benguria lankidea omendu genuen. Gaizka Mabeok, omenduaren lagunak, Robertori buruz eman zigun hitzaldia. Plentziako Bekasler jatetxean egindako bazkariak amaiera eman zion jai egunari.

1998 IRUÑEA 1998ko ekainaren 7an, Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialean, Iruñean, 30-35 lagun bildurik, III Batzar Orokorra egin genuen. Egun berean, Miren Galarza Zulueta Oñatiko farmazialaria eta Victor Santesteban Miranda Iruñeko kimikari eta farmazialaria omendu genituen. Pello Iturriak hitz egin zuen omendui buruz. Iruñeko Vista Beila jatetxean egindako bazkariak amaiera eman zion jai egunari.

1999 GASTEIZ 1999ko maiatzaren 23an, Arabako Farmazialarien Elkargo Ofizialean, Gasteizen, 20 bat lagun bildurik, IV. Batzar Orokorra egin genuen. Batzarra egin ondoren, Iñaki Casado Redin farmazialari nafarrak "Prunus spinosa. Fruituaren osagaiak

eta Nafarroako patxarana" izenburua zuen hitzaldia eman zuen. Gasteizko Canciller Ayala hotelean egindako bazkaria amaiera eman zion jai egunari.

2000 DONOSTIA 2000ko apirilaren 9an, Donostiako Gastronomiazko Euskal Anaiartea / Cofradía Vasca de Gastronomía elkartearen, 20 bat lagun bildurik, V. Batzar Orokorra egin genuen. Batzarra egin ondoren, Edume Simon farmazialariak "Obesitate: eragileak eta tratamenduak" izenburua zuen hitzaldia eman zuen. Bertan egindako bazkariak amaiera eman zion jai egunari.

2001 BAIGORRI 2001eko apirilaren 1ean, Baigorriko (Nafarroa Beherea) Bil-Etxean, 20 bat lagun bildurik VI. Batzar Orokorra egin genuen. Batzarra egin ondoren Anje Arréguy, bertako farmazialariak "Biolagaztaren bidez, hidrogeno sulfuroaren degradazioaren ikerketa" izenburua zuen hitzaldia eman zuen. Baigorriko Manexenea jatetxean egindako bazkariak amaiera eman zion jai egunari.

2002 EIBAR 2002ko apirilaren 14an, Eibarko Arrate Kultur Elkartearen, 20 bat lagun bildurik VII. Batzar Orokorra egin genuen. Batzarra egin ondoren, Alfredo Eiorza, bertako lankideak "Mostradoreko homeopatia" izenburua zuen hitzaldia eman zuen. Ixua jatetxean egindako bazkariak amaiera eman zion jai egunari.

2003 ORIO 2003ko apirilaren 6an, Orioko Kultur Etxean, 25 bat lagun bildurik, VIII. Batzar Orokorra egin genuen. Batzarra egin ondoren, Iñaki Lasa Alestaran lankidea omendu genuen. Bere semea Iñakik altari buruz hitz egin zigan. Bertako Jose Mari jatetxean egindako bazkariak amaiera eman zion jai egunari.

2004 BILBO 2004ko martxoaren 28an, Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialean, 25 bat lagun bildurik, IX. Batzar Orokorra egin genuen. Batzarra egin ondoren, Arrate Jauregi eta Itziar Fernandez de Larinoa lankideei I. FEUSE SARIA eman genien. Jarraian, irabazleek saritutako lanari buruz hitz egin ziguten. Egun berean, Javier Saenz de Buruaga lankidea omendu genuen. Bere alaba Soriak hitz egin zigan altari buruz. Hesperia-Zubialde Hotelean egindako bazkariak amaiera eman zion jai egunari.

2005 BASTIDA 2005eko apirilaren 3an, Granja Ntra. Sra. de Remelluri S.A.k Bastida/Labastidan (Araba) dituen upeltegietan, 20 bat lagun bildurik, X. Batzar Orokorra egin genuen. Jarraian, FEUSEren FARMABURUA EHUKO FARMAZIA FAKULTATEARI eman genion. Ekitaldia bukatu ondoren, upeltegiak bisitatu genituen. Bertan egindako bazkari batek amaiera eman zion jai egunari.